

tzetan, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateratua onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzazako Dekretuak emailei ematen dizkien eskubideen kalterik gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko-aren.....a.

(Sinadura)

KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA
NAGUSIA.LEHENDAKARITZA

**OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
GARRAIO
ETA HERRI LAN SAILA**

Zk-2767

105/2000 DEKRETUA ekainaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari «Euskadiko Kirol Portua, SA» sortu eta sozietateko partaidetzak erosteko baimena ematen diona.

Euskadiren Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legearen 44.1 artikulua ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edonolako sozietateak sortu eta haietako partizipazioak erosteko baditu, Eusko Jaurlaritzaren Dekretu bidezko baimena beharko du, eta Ekonomia eta Ogasun sailburuak eta zuzenean interesaturiko Saileko buruak aurkeztu beharko dute dekretu-proposamena.

Administrazio honek interes handia du eratzeko fazean dagoen «Euskadiko Kirol Portua, SA» sozietate anonimoa sortu eta horretan parte hartzeko. Sozietate horren xedea honakoa izango da: kirol-portuen plangintza egin, eta horiek bultzatu, garatu eta ustiatzea –ustiatketa hori, sozietateak berak, emakidadun gisa burutu ahal izango du, edo dagozkion eskubideak hirugarren pertsona juridiko nahiz pribatuei laga ahal izango dizkie–; azterlanak egitea eta kudeaketa eta teknika arloan zerbitzuei aholkularitza eskaintzea; interes bereziko kirol-portuekin erlazionaturiko enpresen kapitalen parte hartzea, kasuan kasuan zehaztuko den eran; finantza erakunde publiko nahiz pribatuengandik mai-

mo....., en los términos establecidos en el artículo 7 del Decreto / de de , sin perjuicio de los derechos que le corresponden como cesionaria o cesionario, regulados en el Decreto Legislativo 1/1996, de 12 de abril, por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley de Propiedad Intelectual.

En.....a.....de..20..

(Firma)

SECRETARIA GENERAL DE ACCION EXTERIOR.
LEHENDAKARITZA

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PÚBLICAS**

Nº-2767

DECRETO 105/2000, de 6 de junio, de autorización a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la creación y adquisición de participaciones en la sociedad anónima «Euskadiko Kirol Portua, S.A.».

El artículo 44.1 de la Ley 14/1983, de 27 de julio, de Patrimonio de Euskadi, establece que la creación y la adquisición de participaciones de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en sociedades de cualquier clase deberán ser autorizadas por Decreto del Gobierno Vasco, a propuesta conjunta del Consejero de Economía y Hacienda y del titular del Departamento directamente interesado.

Esta Administración está interesada en la creación y participación en la sociedad anónima en fase de constitución «Euskadiko Kirol Portua, S.A.», cuyo objeto se centra en: la planificación, promoción, desarrollo y explotación de puertos deportivos, por sí, en calidad de concesionario o mediante la cesión de los derechos que le correspondan a terceras personas, tanto jurídicas como privadas; la realización de estudios, prestación de asesoramiento de servicios en los ámbitos de gestión y técnico; participación en el capital social de empresas relacionadas con puertos deportivos de particular interés y en las condiciones que en cada caso se determinen; recibir préstamos de entidades financieras públi-

leguak hartzea; obligazio edo antzeko tituluak egitea; eta Euskadiko Ogasun Orokorrarengandik eta estatuko erakunde publikoengandik diru-laguntza eta bermeak hartzea; izan ere, Garraio eta Herri Lan Sailak helburu horiek bultzatu nahi ditu.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Garraio eta Herri Lan sailburuaren proposamenez, Jaurilaritzaren Kontseiluak 2000ko ekainaren 6an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari «Euskadiko Kirol Portua, SA» izena hartuko duen sozietate anonimo erako sozietate publikoa sortzeko. Sozietate horrek, eratzerakoan, bazkide bakarra izango du: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.

2. artikulua.— Sozietatearen xedea honakoa izango da: kirol-portuen, eta horien inguruen eta instalazioen plangintza egin, eta horiek bultzatu, garatu eta ustiatzea. Ustiaketa hori, sozietateak berak, emakidadun gisa burutu ahal izango du, edo dagozkion eskubideak hirugarren pertsona juridiko nahiz pribatuei laga ahal izango dizkie.

Azterlanak egitea eta kudeaketa eta teknika arloan zerbitzuei aholkularitza eskaintzea.

Interes bereziko kirol-portuekin erlazionaturiko enpresen kapitalean parte hartzea, kasuan kasuan zehaztuko den eran.

Finantza erakunde publiko nahiz pribatuengandik maileguak hartzea.

Obligazio edo antzeko tituluak egitea.

Euskadiko Ogasun Orokorrarengandik eta estatuko erakunde publikoengandik diru-laguntza eta bermeak hartzea

3. artikulua.— Sozietatearen sorrerako kapitala berrogeita sei milioi zazpiehun eta hogeita mila (46.720.000) pezetakoa (280.792,86 euro) izango da; MILAna (1.000) pezetako balio nominaleko 46.720 akziotan banatuko da. Akzioak izendunak izango dira, eta sorrerako kapitala Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak izenpetu eta ordainduko du oso-osorik.

Baimena ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sozietatea eratzerakoan izenpetu behar dituen akzio guztien balio nominala ordaintzeko.

cas y privadas; emitir obligaciones o títulos similares; recibir subvenciones y garantías de la Hacienda General del País Vasco y de otras instituciones y entidades públicas de la Comunidad Autónoma, así como del sector público estatal, objetivos que se desean impulsar desde el Departamento de Transportes y Obras Públicas.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y del Consejero de Transportes y Obras Públicas, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 6 de junio de 2000,

DISPONGO:

Artículo 1.— Se autoriza a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco la creación de una sociedad pública, con forma de sociedad anónima, cuyo único socio en el momento de la constitución será la Administración de la Comunidad del País Vasco, que tendrá la denominación de «Euskadiko Kirol Portua, S.A.».

Artículo 2.— El objeto de la sociedad será la planificación, promoción, desarrollo y explotación de puertos deportivos y sus áreas e instalaciones conexas, por sí, en calidad de concesionario o mediante la cesión de los que correspondan a terceras personas, tanto jurídicas como privadas.

La realización de estudios, prestación de asesoramiento de servicios en los ámbitos de gestión y técnico.

Participar en el capital social de empresas relacionadas con puertos deportivos de particular interés y en las condiciones que en cada caso se determinen.

Recibir préstamos de entidades financieras públicas y privadas.

Emitir obligaciones o títulos similares.

Recibir subvenciones y garantías de la Hacienda General del País Vasco y de otras instituciones y entidades públicas de la Comunidad Autónoma, así como del sector público estatal.

Artículo 3.— El capital social fundacional será de cuarenta y seis millones setecientos veinte mil (46.720.000) pesetas (280.792,86 Euros) representado por 46.720 acciones de mil (1.000) pesetas de valor nominal cada una. Las acciones serán nominativas y el capital fundacional será suscrito y desembolsado íntegramente por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se autoriza la realización del desembolso íntegro del nominal correspondiente a las acciones que se suscriben por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el momento de constituirse la sociedad.

4. artikulua.– 1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion eskubideak, bazkide bakarra den bitartean, Jaurlaritzaren Kontseiluak erabiliko ditu, eta, bazkide bakar gisa, hark eratuko du Akzionisten Batzar Orokorra ere.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bazkide bakar izateari uzten badio, bazkide gisa dituen eskubideak Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburuak erabiliko ditu.

5. artikulua.– «Euskadiko Kirol Portua, SA» sozietate publikoa Garraio eta Herri Lan Sailari atxikiko zaio.

6. artikulua.– Ahalmena ematen zaie Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ondare eta Kontratazio zuzendariari eta Garraio eta Herri Lan sailburuari, sozietatea eratzekeo eskritura publikoa egitekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean jardun dezaten, sozietatearen estatutuak onar ditzaten eta Administrazio Kontseiluko kargu eta kideak hautatu ondoren izenda ditzaten; bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion akzioak izenpetu eta ordaintzeko behar den diru ekarpena gauzatu, eta sozietatea eratzekeo beharrezko diren agiri publiko eta pribatu guztiak egin ditzaten.

AZKEN XEDAPENA.

Dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera, portuak bultzatu eta garatzeko sortutako sozietateek «Euskadiko Kirol Portua, SA» sozietate berrian sartu beharko dute.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko ekainaren 6an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
ÁLVARO AMANN RABANERA.

Artículo 4.– 1. Los derechos de socio correspondientes a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en tanto ésta sea el único socio, serán ejercitados por el Consejo de Gobierno Vasco, que como socio único, constituirá la Junta General de Accionistas.

2. En el supuesto de que la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco pierda su condición de socio único, el ejercicio de los derechos de socio corresponderá al Consejero de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco.

Artículo 5.– La sociedad pública «Euskadiko Kirol Portua, S.A.» se adscribe al Departamento de Transportes y Obras Públicas.

Artículo 6.– Se faculta al Director de Patrimonio y Contratación del Departamento de Hacienda y Administración Pública y al Consejero de Transportes y Obras Públicas para concurrir, en nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al acto de otorgamiento de la escritura pública de constitución de la sociedad, aprobación de los estatutos sociales y formalización de la designación de los cargos y miembros del Consejo de Administración, una vez hayan sido designados, así como para materializar los desembolsos y aportación necesarios para la suscripción y cobertura del importe de las acciones atribuidas a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y extender cuantos documentos públicos y privados sean precisos para la constitución de la sociedad.

DISPOSICIÓN ADICIONAL.

A partir de la fecha de entrada en vigor del presente Decreto, las sociedades participadas creadas para la promoción y desarrollo de los puertos, procederán a integrarse en la sociedad de nueva creación «Euskadiko Kirol Portua, S.A.»

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 6 de junio de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
ÁLVARO AMANN RABANERA.